



III. ATALA

ERRAMUN BAXOKI ESKAINITAKO LANAK

>>>

7

IDENTITATE ETNOLINGUISTIKOA (IELA) EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN (EAEAN)

Maria-Jose Azurmendi, zuzendaria
Nekane Larrañaga
Jokin Apalategi

Euskal Herriko Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net

SARRERA

Identitate etnolinguistikoaz (IELa) eta euskal identitateaz mintzatuko gara artikulu honetan, neurri batean behintzat, errepikatzea izan arren. Erramun Baxoki eskainitako omenezko zenbaki monografikoan gai horretaz aritzea erabaki dugu, zenbait arrazoi tarteko: 1) Baxoken ibilbide eta ikerketekin ondo lotzen delako —egia esan, bere biografia ezin dugu ulertu euskal identitate sakonik gabe; adibidez, 2006. urtean Baxok eta besteek (Baxok, 2006) argitaratu zuten ikerketa, ez al zen ba nortasunari buruzkoa?—, eta 2) baita, gure gustukoa delako ere, euskal testuingurua nahiko ondo azaltzeko baliagarria dela uste dugulako, jadanik identitatearen gaian nahiko adituak garelako, eta unibertsitatean —batzuen artean— aztergai izan dugulako (Azurmendi, Larrañaga, Apalategi, Bourhis, Ruiz, Etxepeteleku eta Sánchez de Miguel, 2005).

Gure testuinguruan, sarri, *euskal nortasun* moduan ezagutzen denari guk *euskal identitatea* deituko diogu hobeto bereizteko, alde batetik, *personality*, *personalité*, *personalidad*, nortasuna, eta, bestetik, *identity*, *identité*, *identidad*, identitatea, artikulu honetan jarraituko dugun ikuspegi psikologikoaren eta psikosozialaren ildotik.

IDENTITATEA

Identitatea prozesu psikosozial berezia da, hau da:

- Prozesu bat izanik, identitatearen eraikuntzan bestelako prozesu psikosozialek ere parte hartzen dute: kognitiboek, motibaziozkoek eta afektiboek. Horregatik, agian, prozesu psikosozial konplexuena da.
- Beste prozesu psikosozialetan ere kualitatiboki parte hartzen du. Prozesu oso konplexua da; esaera arrunta erabiliz, eltze askotako burruntzalia. Horregatik, identitatea hainbat prozesuren aurrekari zein ondorio gisa jokatzeko baliagarri da. Gainera, prozesu psikosozialen artean, agian, interaktiboena da. Hori guztia, gurean ere, euskararen gai zabalean gertatzen da.
- Identitatea prozesu interaktiboa da honako moduetan ere: 1) identitateak prozesu eta portaeren arteko lotura ondo ziurtatzen du, hau da, norbanakoaren portaeraren aurrekari nagusia da; eta 2) gizabanako eta gizartearen arteko harremanak gidatu eta adierazten ditu.
- Bestalde, identitatean bereizi daitezke: 1) osagarriak: kultura, hizkuntza eta abar; 2) mailak: identitate pertsonala edo pertsonen artean eraikitzen dena, soziala edo talde artean eraikitzen dena, nazionala edo nazio artekoa eta abar; 3) eta motak; identitate sozialean, adibidez, etnikoa edo etnia artekoa, linguistikoa edo hizkuntza artekoa eta abar.

Lan honen aztergai nagusia identitate etnolinguistikoa da (IELa) (Azurmendi, 2000). Horrela, honako aukerak egingo ditugu:

- Ikuspegi psikosozialari jarraituz, oro har, honako bi ildoak landuko ditugu: **1) kognitiboa** edo auto-kategorizazioarena —tradizionallagoa—, eta **2) afektiboa** edo sentimenduari lotzen zaiona —berriagoa—. Horri buruz, lehen hipotesia proposatuko dugu; **H-1:** IELaren prozesua eraikitzeke eta mantentzeke orduan ildo afektiboa esanguratsuen da.
- Identitateak prozesu psikosozialen artean betetzen duen zentralitatea kontuan hartuz, honako hipotesiak proposatuko ditugu; **H-2:** lortuko ditugun IEL-mota desberdinek ondorio moduan jokatuko dute aurrekariak dituztelako, eta, baita, alderantziz ere; **H-3:** IEL-mota horiek aurrekari gisa agertuko dira.
- Prozesua osoa eta interaktiboa denez, identitatea baliagarria da prozesuak eta portaerak positiboki ala negatiboki elkarlotzeko. Hor-taz, **H-4** proposatuko dugu: IEL-mota bakoitzeko prozesu eta portaera bereziak gertatuko dira, bai positiboki eta baita negatiboki ere.
- IELan tradizionalki bereizten diren alderdiak kontuan hartuz,

Baxoken biografia ezin dugu ulertu euskal identitate sakonik gabe.

IELaren prozesua eraikitzeke eta mantentzeke orduan ildo afektiboa esanguratsuen da.

**IELaren eraikuntzan,
identitate etniko
globalaren ondoan
—euskalduna,
espainiarra, euskalduna-
espainiarra, ...—
hizkuntza eta kultura
dimentsioak ere
esanguratsuak izango
dira.**

honako hipotesiak proposatuko ditugu: 1) osagarrien arabera, **H-5**: IELaren eraikuntzan, identitate etniko globalaren ondoan —euskalduna, espainiarra, euskalduna-espainiarra, ...— hizkuntza eta kultura dimentsioak ere —euskalduna eta espainiarra— esanguratsuak izango dira; gure inguruan bestelako zenbait dimentsio ere garrantzizkoak izan daitezke, lurraldetasuna eta politikoa, esate baterako; 2) mailaren arabera, **H-6**: IELa taldearteko mailan kokatuko da, eta aipatutako osagarriak kategoría moduan jokatuko dute, inguruan talde etnolinguistikoak sortuz; 3) moten arabera, **H-7**: Honako IEL-mota hauek lortzea espero dugu: (1) alde batetik, **muturreko IEL-motatakoak**, ikuspegi psikosozialari jarraituz prototipotzat hartzen direnak: *euskalduna*, *espainiarra*, *euskalduna+espainiarra* —edo *espainiarra+euskalduna*, ikusi behar—, **ez-IELrik**, esanguratsuenak izango direnak, eta (2) **bestelako erdibideko IEL-tipoak**.

Identitateari buruz —baita IEL-motari buruz ere— teorizazio berri xamarrek sortzen ari dira. Teorizazio horietan zentralitatea —edo gunea— pertsonarteko identitate pertsonalaren mailan jartzen da, eta ez taldeartekoan —edo analisi eta aplikazio maila nagusiagoan—. Hori bat dator, bestalde, egungo gizabanako mailaren aldeko joera indibidualista nagusiarekin, edo globalizazioarekin zabalitzen ari den indibidualizazioaren aldeko ideologiarekin. Joera hori hainbat modutan adierazten da: 1) ikerlari batzuek diote gizarte zientzietan “psikologizazio” prozesua gertatzen ari dela, positiboki formulatuz, 2) guk, aldiz, gizarte zientzietan “desozializazioa” gertatzen ari dela diogu, negatiboki formulatuz. Baina badira oraindik ere egoskor agertzen diren hainbat kategoría. Eta horiek, taldeak sortzen dituzte ia derrigorrez. Adibidez, kategoría *etnikoa* —modu zabalean edo konplexuan ulertuz— hainbat osagarriarekin eraikitzen da, eta kategoría *etnolinguistikoa* esate baterako, horietako bat da.

Identitate etnolinguistikoa (IELa) da, hain zuzen ere, artíkulu honetan aztertuko duguna, hau da, talde etniko eta linguistikoen artekoa, ukipen egoeretan erlatiboa edo konparaziozkoa dena. Ikerketa honetan *IEL-euskalduna* eta *IEL-espainiarra* aztertuko ditugu. Horretarako, Fishman adituak, jadanik, 1960 hamarkadan sortu zuen soziolinguistikako ikerketa-arlo osoa (Erize, 2001), eta 1970 hamarkadan psikosoziolinguistika eremuan zabalduakoa ditugu (Giles, 1977). Biak gaurdaino etengabe erabili diren teorizazioak dira —beraien artean gero eta modu osagarriagoan aplikatuak, eta euskal inguruan erabili ohi direnen antzekoak—, eta hemen ere erabiliko ditugu.

METODOA

Lan honetan erakutsi nahi ditugun emaitzak identitate etnolinguistikoa (IELa) eta beste teoria batzuk erabiliz eginiko ikerketa enpiriko zabal

batean (Azurmendi et al., 2005) txertatzen dira. Helburuetako bat IELa gurean nola azaltzen den ikustea da: etnikoa globalki, baina baita linguistikoa eta kulturala ere. Ikerketaren metodologia kuantitatiboa izan da: 1) datu-bilketarako Likert eskalako 7 puntuko galde-sorta baliatu da; 2) analisietarako proportzioak, batez bestekoak (1/7) eta, gehienbat, korrelazioak —bikoa eta anizkuna— erabili da. 3) Lagina Euskal Autonomi Erkidegoko (EAE) —ez Euskal Herri osoko— 814 ikasle unibertsitariok osatzen dute; lagina soziologikoki nahiko esanguratsua da hainbat alderdi kontuan hartzen baititu: unibertsitate eta titulazio desberdinak, lerro linguistikoak, hiru campusak eta abar. Galde-sorta unibertsitatean bete zuten ikasleek, eskola-ordutegiaren barruan, 2004. urtean. Azkenik, kontuan hartu behar da ikerketaren azterketa eta emaitza batzuk soilik eskainiko ditugula artikulu honetan.

EMAITZAK

Laginaren deskribapen orokorra

Erakutsiko ditugun emaitzak erraz ulertzeko, aztertu dugun populazio-mota hobeto ezagutzea beharrezkoa dela dirudi. Horretarako, laginaren deskribapen orokorra egingo dugu ondoren.

Lagina unibertsitateko 814 ikasleek osatzen dute, eta, besteak beste, honako ezaugarriak ditu:

- Unibertsitate munduko bereizgarrien arabera: 1) %86,6 UPV/EHUko ikasleak dira eta %13,4 Deustuko Unibertsitatekoak; 2) %19,9 Arabako Campuseko ikasleak dira, %36,9 Bizkaikoak eta %29,9 Gipuzkoakoak; 3) %51,6 gizarte zientzietako titulaziokoak eta %48,4 natur zientzietako eta teknikotako titulaziokoak; 4) %44,4k euskaraz ikasten dute (neurri desberdinetan) eta %55,6k espainieraz.
- %68,7 emakumezkoak dira eta %31,3 gizonezkoak.
- Ikasleen adinaren batez bestekoa 21 urtekoa da.
- Jatorriaren arabera: ikasle eta euren gurasoen jaioterria Euskal Herria duten ikasle-taldeak laginaren %56a osatzen du; ikasle eta euren gurasoen jaioterria Espainia duten ikasle-taldeak laginaren %19a. Ikaslearen eta bere gurasoetako bakar baten jaioterria Euskal Herria —eta bestearena Espainia— duten ikasle-taldeak laginaren %25a osatzen du.
- Lehen hizkuntzaren arabera: %28,6ren lehen hizkuntza euskara da, %65,6rena espainiera eta %5,9rena euskara eta espainiera.
- Hizkuntzen munduko bereizgarrien arabera (kontuan izan gure inguruan ukipen egoeran dauden hizkuntzak ditugula):
 - Derrigorrezko bigarren hezkuntzan (12-16 urte artean) jarraitutako eredu linguistikoaren arabera: %47,5ek D eredu edo eus-

Lan honetan erakutsi nahi ditugun emaitzak identitate etnolinguistikoa (IELa) eta beste teoria batzuk erabiliz eginiko ikerketa enpiriko zabal batean txertatzen dira.

**IEL-euskaldun
prototipoaren osagarri
nagusia euskal kultura
da. Aldiz, IEL-
espainiarra+euskaldunare
n eta IEL-espainiarraren
kasuetan kulturarekin
baino gehiago
espainierarekin
identifikatzen dira.**

**IELaren eraikuntzan
kulturak hizkuntzak
baino eragin handiagoa
du.**

**Bi IEL-mota nagusiak
(IEL-
espainiarra+euskalduna
eta IEL-euskalduna)
bateraezinak direla
beraien artean, hau da,
beraien arteko egoera
gatazkatsua dela.**

karaz jarraitu du, %38,3k A eredua edo espainieraz, %14,2k B eredua edo bi hizkuntzetan.

- Aitortutako hizkuntza gaitasunaren arabera, 1/7 puntuko eskalako batez bestekoa erabiliz: euskara = 5,2; espainiera = 6,2; (ingelesa = 4,2; frantsesa = 2,1).

- Etxean erabiltzen den hizkuntzaren arabera, 1/7 puntuko eskalako batez bestekoa erabiliz: euskara = 3,6; espainiera = 6,2; (ingelesa = 1,7; frantsesa = 1,2).

- Hizkuntzak ezagutzeko nahiaren arabera, 1/7 puntuko eskalako batez bestekoa erabiliz: euskara = 6,4; espainiera = 6,1; (ingelesa = 6,4; frantsesa = 5,5).

• Ideologiaren arabera: 1) atxikimenduen arabera: %29,9k oso ezkertiar definitzen dute beren burua, %25,5ek ezkertiar, %18,9k erdi ezkertiar, %20,1ek erdiko, %3,6k erdi eskuindar, %1,1ek eskuindar, %1,1ek oso eskuindar; 2) alderdi politikoeikiko sinpatiarene arabera, batez bestekoak: Euskal Herriko eremuko aldekoak = 2,3; Espainiako eremuko aldekoak = 2,2.

• Identifikazio munduan, batez bestekoek honakoa adierazten dute:

1) IEL globala: euskalduna = 6,1; espainiarra = 3,3.

2) Identitate linguistikoa: euskararekin = 5,3; espainierarekin = 5,0.

3) Beste lurraldeekin: Euskal Autonomi Erkidegoarekin (EAErekin) = 5,7, Europarekin = 4,8.

4) Politikoki: Euskal subiranotasunarekin = 4,3; Espainiako batasunarekin = 2,5.

IEL tipologia

IEL tipologia lortzeko 7 puntuko eskalak hainbat modutan bana daitezke, esate baterako, batez bestekoak erabiliz. Guk honako irizpideari jarraitu diogu:

1) *Euskal identitatea*, globalki ("¿hasta qué punto se identifica como vasco?") eta hizkuntza-osagarriarekin ("¿hasta qué punto se identifica con la lengua vasca?"), = euskal identitatea 5-7 + espainiar identitatea 1-3.

2) *Espainiar identitatea*, globalki ("¿hasta qué punto se identifica como español?"), eta hizkuntza-osagarriarekin ("¿hasta qué punto se identifica con la lengua española?"), = espainiar identitatea 5-7 + euskal identitatea 1-3.

3) Eskalaren 4. puntua ez da kontuan hartuko, identitatearekiko axolagabetasuna adierazten duela uste dugulako. Horrela, honako tipologia lortu dugu (1. Taula):

1. Taula: Identitate etnolinguistikoa (IELa): globala eta hizkuntzarekikoa. Tipologia: prototipoak eta tipoak.

	IEL tipologia	Maiztasuna	% Lagin osoan	% Lagin sailkatuan
Prototipoak	euskalduna	155	19,0	31,9
	espainiarra+euskalduna	137	16,8	28,2
	espainiarra	18	2,2	3,7
Tipoak	euskalduna+hizkuntza espainiera	136	16,7	28,0
	espainiarra+ kultura euskalduna	40	4,9	8,2
	Guztira	486	59,7	100,0
	Sistemak galduak	328	40,0	
	Guztira (lagina)	814	100,0	

Lehen taulako (1. Taula) emaitzek honakoa erakusten dute:

- Gaur egun, pertsona-kopuru handienaren IEL-mota *IEL-euskalduna* muturreko prototipoa da (lagin osoaren %19,0). Ondoren datoz *IEL-espainiarra+euskalduna* prototipo mistoa (%16,8), *IEL-euskalduna+espainiera* hizkuntza erdibideko tipoa (%16,7), eta *IEL-espainiarra+euskal kultura* erdibideko tipoa (%4,9). Azkenik, *IEL-espainiarra* muturreko prototipoa ageri da (%2,2).

Laburbilduz:

- 1) Hiru prototipoen artean *IEL-euskalduna* eta *IEL-espainiarra+euskalduna* dira nagusiak (alde txikiarekin); *IEL-espainiarra* oso txikia da.
 - 2) Erdibideko tipoen artean, aldiz, *IEL-euskalduna+espainiera* tipoa esanguratsua da.
- Sailkatu gabe edo sistemak galdutako pertsona-kopuru nahiko handia geratu da (%40,0). Talde horretan kokatuko lirateke: 1) IELarekiko arduragabetasuna adierazten dutenak —eskalako 4. puntuan kokatzen direnak—, 2) erdibideko tipotan kokatzen diren bestelako IELak, 3) ez-IELa adierazten dutenak —identitatearekiko osagarri guztietan 1-3 puntutan kokatzen direnak—, eta soilik identitate pertsonala —baina ez-soziala— adierazten dutenak. Esan daiteke, beraz, gaur egun, pertsona-kopuru handia dagoela IEL-tipologia honetatik kanpo.

Ikuspegi psikosozialari jarraituz, IEL interesgarrienak prototipoak dira, muturreko IELen adierazgarri direlako, suposatuz IEL-prototipoak ulertzeak erraztuko duela erdibideko IEL-tipoak ere ulertzea –ikuspegi psikosozialen ohikoa dena), hauek joerak adierazten dituztelako eta, agian, prototipo batzueganako ibilbidea erakutsiko dutelako. Irizpide horri jarraituz, eta analisiak sinplifikatzearen, IEL-prototipoetan honakoa aztertuko ditugu: 1) bi ildo psikosozialak (kognitiboa eta afektiboa), 2)

ukipenezko egoeratako IEL globala, eta IELaren osagarri nagusi diren bi hizkuntzen eta bi kulturen ezaugarriak —euskalduna eta espainiarra—. Emaitzak 2. Taulan erakusten dira:

2. Taula: Hiru IEL-prototipoen eraikuntza konplexua, intentsitatea (edo indarra)

Prototipoak Osagarriak	IEL- euskalduna	IEL- espainiarra+ euskalduna	IEL- espainiarra	F
IEL globala				
IEL-euskalduna	6,90	6,16	3,14	F (2; 382)= 530,358 p<.000
IEL-espainiarra	1,30	5,93	6,07	F (2; 382)= 1913,260 p<.000
IEL-espainiarra+euskalduna	1,64	6,45	5,27	F (2; 381)= 904,404 p<.000
Kultura				
euskalduna	6,68	5,76	2,98	F (2; 382)= 249,161 p<.000
espainiarra	1,51	5,45	5,62	F (2; 380)= 711,521 p<.000
espainiarra+euskalduna	2,14	6,04	4,98	F (2; 381)= 504,541 p<.000
Hizkuntza				
euskalduna	6,59	5,42	2,33	F (2; 382)= 346,946 p<.000
espainola	2,06	6,48	6,71	F (2; 382)= 1636,173 p<.000
espainiarra+euskalduna	3,18	5,97	3,88	F (2; 381)= 228,146 p<.000
Nahi izatea				
euskalduna	6,83	5,96	3,10	F (2; 381)= 198,403 p<.000
espainiarra	1,25	5,53	5,64	F (2; 381)= 640,714 p<.000
Euskalduna izatearekin				F (2; 381)= 181,388 p<.000
kontent	6,80	6,21	2,95	
asebetea (pozik)	6,73	6,07	3,02	F (2; 382)= 162,651 p<.000
lasai	6,63	5,81	2,76	F (2; 382)= 155,501 p<.000
harro	6,78	5,95	2,52	F (2; 382)= 162,779 p<.000
Espainiarra izatearekin				
kontent	,40	5,70	5,71	F (2; 382)= 1067,933 p<.000
asebetea (pozik)	,37	5,54	5,69	F (2; 382)= 956,052 p<.000
lasai	,42	5,55	5,76	F (2; 382)= 913,891 p<.000
harro	,32	5,35	5,62	F (2; 382)= 695,286 p<.000

Oharra: letra lodiz emaitza nagusiak

Bigarren taulako (2. Taula) emaitzek honakoa erakusten dute:

- Ildo kognitiboa aztertuz, IELaren eraikuntzan honako identifika-
 zio-osagarri motak ditugu: globala, eta ukipenezko hizkuntzak eta
 kulturak:

1) *IEL-euskaldunaren* kasuan IEL globala da indar handienarekin
 agertzen dena, osagarri guztien ordezkari moduan jokatzuz, teo-
 rikoki espero den eran.

2) *IEL-espainiarra+euskaldunaren* eta *IEL-espainiarraren* kasuetan,
 aldiz, hizkuntza espainiarrarekiko identifikazioa handiagoa da
 IEL globalarekikoa baino. Emaitzak hori espero zitekeen —ez teo-
 rikoki baina bai enpirikoki—, lehendik egindako hainbat ikerke-
 ten emaitzak kontuan hartuz gero.

3) *IEL-euskaldun* prototipoaren osagarri nagusia euskal kultura da.
 Aldiz, *IEL-espainiarra+euskaldunaren* eta *IEL-espainiarraren* kasuetan
 kulturarekin baino gehiago espainierarekin identifikatzen dira.

4) Lortzen den prototipo mistoa *IEL-espainiarra+euskalduna* da — ez *IEL-euskalduna+espainiarra* —, *IEL-espainiarrarekin* antz handiagoa duelako *IEL-euskaldunarekin* baino. Prototipo misto hori, teoriar behintzat, erdibidekoa izango da.

- IELaren eraikuntzan, identitatearen kalitatea neurtzeko ildo afektiboa ere aztertzen da, bi identifikazio-osagarri mota bereizita:

- 1) globala: “¿hasta qué punto desea ser vasco, español?” galderaren bitartez;

- 2) osagarri partikularrak: “¿hasta qué punto se siente contento, satisfecho, cómodo, orgulloso de ser vasco, español?” galderaren bitartez.

Berriro ere antzera gertatzen da: (1) identifikazio prozesuan, *IEL-euskaldunaren* kasuan osagarri globala indar handiagoarekin azaltzen da osagarri partikularrak baino. (2) Aldiz, beste bi prototipoetan alderantziz gertatzen da.

Osagarri guztiak kontuan hartuta, muturreko emaitzak —intentsitate handienarekin eta txikienarekin adierazten direnak— honakoak dira: 1) *IEL-euskalduna* prototipoa, 2) eta afektibitatearekin lotzen diren osagarrietakoa —kognitiboarekin lotzen direnetakoak baino sarriago—. Horrela, IELaren prozesuan H-1 baieztatzen da, baita gure testuinguruan ere.

Aurrekoa azpimarratzeko, analisi faktoriala burutu dugu erabilitako osagarriekin; analisi horri bestelako osagarri-mota bat ere gehitu diogu, lurraldetasunarena, alegia, *euskaldun* eta *espainiar* erreferentziatik kanpo identifikaziorik dagoen ala ez ikusteko. Gai hori helburu, honako galderak egin ditugu: “¿hasta qué punto se identifica como europeo?” eta “¿hasta qué punto se identifica con su Comunidad Autónoma de origen?”. Emaitzak 3. Taulan erakusten dira:

Hiru prototipoetan mehatxu-sentimendu handiena osagarri linguistikoarekikoa da.

1) *euskararekiko mehatxu-sentimendua: IEL-euskalduna, indar handiarekin (5,97) eta IEL-espainiarra+euskalduna indar gutxiagorekin (3,15).*

2) *espainierarekiko mehatxu-sentimendua: IEL-espainiarra prototipoan indar ez hain handiarekin (3,40). Beste modu honetan ere ikusten da hizkuntzak osatzen dutela osagarri nagusi bat -edo nagusia-.*

3. Taula: IEL tipologiaren eraikuntza konplexua, ildo kognitibo eta afektiboaren arabera (analisi faktoriala)

IEL-osagarriak	1. Faktorea %38,3	2. Faktorea %27,9	3. Faktorea %9,7
Espainiar izatearekin kontent	,948	-,165	,096
Espainiar izatearekin asebetea (pozik)	,944	-,167	,094
Espainiar izatearekin harro	,937	-,150	,078
Espainiar izatearekin lasai	,932	-,181	,092
Espainiar izan nahi	,885	-,136	,169
Espainiar izatea globalki	,872	-,230	,248
Espainiar +euskaldun izatea globalki	,837	-,136	,309
Kultura espainiarra	,772	-,237	,379
Kultura espainiar+euskalduna	,717	-,113	,474
Hizkuntza espainiarra (espainiera, gaztelania)	,654	-,202	,507
Euskaldun izatearekin kontent	-,093	,929	-,086
Euskaldun izatearekin asebetea (pozik)	-,081	,928	-,087
Euskaldun izatearekin harro	-,116	,887	-,067
Euskaldun izatearekin lasai	-,116	,869	-,085
Euskaldun izan nahi	-,228	,818	,114
Euskaldun izatea globalki	-,319	,792	,191
Kultura euskalduna	-,396	,711	,249
Hizkuntza euskalduna (euskara)	-,489	,561	,250
Hizkuntza espainola+euskalduna	,247	,142	,768
Europa, globalki	,272	-,031	,467
Jatorrizko Erkidego Autonomia, globalki	,123	,402	,444

Oharra: letra lodiz emaitza nagusiak

Hirugarren taulako (3. Taula) emaitzek honakoa erakusten dute:

- IEL-mota nagusia sortzerako orduan honako hiru faktore lortu dira: 1) 1. Faktorea %38,3 bariantza erakusten du. Hau da faktorerik garrantzitsuenak, eta *IEL-espainiarra* eta *IEL-espainiarra+euskalduna* ezaugarriak batera jasotzen ditu; 2) 2. Faktorea, %27,9 bariantza du, eta *IEL-euskaldunaren* adierazle da; 3) 3. Faktorea %9,7 bariantza du, bestelako IEL-moten adierazle da; esate baterako, *IEL-europarra+erkidego autonomikoa* mota, eta *euskalduna* eta *espainiarrarekin* identifikazioa (bi hizkuntza eta kulturekin). Horrela, orain arteko emaitzekin erkatuz, egoera orokorra sinplifikatzen da, honako bi IEL-mota nagusitan laburbilduz:
 - 1) *IEL-espainiarra+euskalduna*, alde batetik, bertan jasotzen direlarik 1. Faktorea + 3. Faktorea (honek, 1. faktorearekin dezentekoa antza du, korrelazio positiboak eta negatiboak bi faktoretan nola banatzen diren kontuan hartzen bada).
 - 2) *IEL-euskalduna*, bestetik.
- Bi IEL-mota nagusi horiek antzera xamar jokatzen dute. Identifikazio-osagarrien artean garrantzitsuenak zein diren adierazterakoan honakoak azpimarra daitezke:
 - 1) Lehentasuna du kalitatea adierazten duen dimentsio afektiboak, gehienbat kontent sentitzearekin lotutakoak: $r=,948$ *IEL-espainiarra+euskalduna* motan, eta $r=,929$ *IEL-euskaldun*ean.

2) Ondoren dimentsio kognitiboa dator. Honetan garrantzitsue-
na globalki identifikatze-osagarria da: $r=,872$ IEL-espainiarra, eta
 $r=,837$ IEL-espainiarra+euskalduna motetan, eta $r=,792$ IEL-euskal-
duna motan. Horrela, H-1 (lehen hipotesia) baieztatzen da gure
testuinguruan ere.

3) Bi IEL-motek antzekotasuna ere adierazten dute, korrelazio
positiboak eta negatiboak osagarri-mota berdinetan daudelako.

- Bi IEL-mota nagusiak erkatuz, korrelazio positiboek eta negatibo-
ek erakusten duten egoera oso adierazgarria da:

1) Korrelazio positiboek, esandakoaz gain honakoa erakusten
dute: bi IEL-mota horietan kultura-osagarriarekin korrelazioak
handiagoak dira, hizkuntza osagarriarekin baino. Esan daiteke,
beraz, IELaren eraikuntzan kulturak hizkuntzak baino eragin
handiagoa duela.

2) Korrelazio negatiboek, bere aldetik, zenbait gauza adierazten
dute, adibidez:

- Orokorrean, esan daiteke bi IEL-mota nagusiak (IEL-espainia-
rra+euskalduna eta IEL-euskalduna) bateraezinak direla beraien
artean, hau da, beraien arteko egoera gatazkatsua dela.

- IEL-espainiarra+euskalduna motaren baitan IEL-espainiarra
eta IEL-espainiarra+euskalduna bi prototipo teorikoak jaso-
tzen direla ikusita, egoera are gatazkatsuagoa antzematen
da. IEL-espainiarra+euskalduna prototipo mistoa, teorikoki,
muturren artean kokaturik dagoenez integratzailatzat har-
tzen dena, ez du gurean izaera hori: IEL-euskalduna eta IEL-
espainiarraren artean, badirudi gaur egun dikotomia antago-
nikorako joera nagusitzen ari dela.

- Korrelazio negatibo nagusienak IEL-espainiarra+euskalduna
motaren baitan gertatzen dira. Horrela erakusten da hemen,
izan ere, IEL-euskalduna motarekiko joera negatiboagoak
daude, alderantziko noranzkoan baino.

- IEL-espainiarra+euskalduna motan gertatzen den korrelazio
negatiboena (eta nahiko indar handiarekin gainera) euskal
hizkuntzarekikoa da, euskararekikoa ($r=-,489$). Horrela era-
kusten da bere joera negatiboena euskararen kontrakoa
dela; gatazka nagusia euskararen inguruan dagoela.

Honako egoera ikusita, badirudi beharrezkoa dela esandakoa ziurta-
tzea. Horretarako: IELa osatzen duten osagarrien artean —identitate glo-
bala, kultura eta hizkuntza: euskaldunak eta espainiarrak— loturak nola-
koak diren ikusiz, eta biko korrelazioak erabiliz —bi aldagaien arteko-
ak— analisiak egin ditugu —analisi faktorialak adierazten dutena korre-
lazio anizkunak direlako, edo aldagai guztien artekoa—. Emaitzak 4.
Taulan erakusten dira:

**Alde batetik Euskalduna
globalki eta euskara-
identitateak bere artean,
eta , bestaldetik
espainiarra globalki eta
espainiera-identitateak,
oso antzera jokatzen
dute; hizkuntza-
ezaugarrien korrelazioak
oso antzekoak direlako.**

4. Taula: IEL osatzen duten identifikazio-osagarrien arteko loturak (biko korrelazioak)

Identitateosagarriak	Identitate globala euskalduna	Identitate globala espainiarra+euskalduna	Identitate globala espainiarra
Kultura euskalduna espainiarra espainiarra+euskalduna	,773(**) -,350(**) -,245(**)	-,342(**) ,760(**) ,796(**)	-,415(**) ,830(**) ,739(**)
Hizkuntza euskalduna espainiarra espainiarra+euskalduna	,654(**) -,297(**) ,126(**)	-,383(**) ,682(**) ,409(**)	-,443(**) ,702(**) ,325(**)
Identitate Globala euskalduna espainiarra espainiarra+euskalduna	1,00 -,364(**) -,284(**)	-,284(**) ,875(**) 1,00	-,364(**) 1,00 ,875(**)

** Korrelazioa esanguratsua da 0,01 neurrian

Oharra: Letra lodiz korrelazio positibo eta negatibo esanguratsu nagusienak

Laugarren taulako (4. Taula) korrelazioek aurreko hirugarren taulako emaitzak modu argiagoan ziurtatzen dituzte. Izan ere,

- *Espainiarra+euskalduna* identitate-osagarriak eta *espainiarrak* berdin jokatzen dute:

1) korrelazio positiboek zein negatiboek berdin jokatzen dute (nahiz eta indar handixeagoarekin muturreko osagarri espainiarrean). Horrek modu argian ziurtatzen du osagarri-mota bakarra osatzen dutela (nahiz eta bi intentsitateak zertxobait desberdinak izan). Azkenean bi IEL-mota nagusi definitzen dira: *IEL-espainiarra+euskalduna* eta *IEL-euskalduna*.

2) Berriz ere, korrelazio negatibo nagusienak osagarri *espainiarra+euskalduna* eta *espainiarrean* agertzen dira, eta ez osagarri *euskaldunean*.

3) Korrelazio negatiboena euskararekikoa da, egoera gatazka-tsuenaren erakutsiz.

- 2) Osagarri *espainiarra+euskalduna* eta *espainiarra* alde batetik, eta *euskalduna* bestetik, bateraezinak dira, beraien arteko korrelazioak, beti, esanguratsuki negatiboak direlako.

Identitatea mehatxua izatearen sentimendua

IELaren egoera nolakoa den ikusita, badirudi komeni dela hasierako prototipoak erabiliz, hiru IEL-prototipo horietan mehatxu-sentimendurik dagoen ala ez aztertzea. Azterketa hori, berriz ere, ildo afektiboari lekua eginez burutuko da, gatazka egoeretan eragina izan ohi duelako. IELaren osagarri nagusiak —linguistikoa eta kulturala— aztertuko ditugu, honako galderaren bitartez: “¿hasta qué punto usted se siente amenazado culturalmente, lingüísticamente, como vasco, como español?”. Emaitzak 5. Taulan erakusten dira:

5. Taula: IEL osagarriekiko mehatxua izatearen sentimenduak, hiru IEL-prototipoetan (batez bestekoak, 1/7)

Osagarriak	IEL-euskalduna	IEL-espainiarra+euskalduna	IEL-espainiarra
IEL-euskalduna mehatxua sentitzea			
Kulturalki	5,63	2,98	0,83
Linguistikoki	5,98	3,16	1,11
IEL-espainiarra mehatxua sentitzea			
Kulturalki	,11	2,34	3,16
Linguistikoki	,11	2,11	3,61

Oharra: Letra lodiz emaitza nagusiak

Bosgarren taulako (5. Taula) emaitzek honakoa erakusten dute:

- Mehatxua izatearen sentimenduen ezaugarriak:
 - 1) Muturrekoenak, esanguratsuenak, *IEL-euskaldunaren* kasuan agertzen dira: sentimendu handienak *IEL-euskaldunarekikoak* dira. Txikienak, aldiz, *IEL-espainiarrarekikoak*.
 - 2) *IEL-espainiarra+euskaldunear* dezente txikiagoak dira mehatxu-sentimenduak, baina, hala ere, handixeagoak euskal identitatearekiko osagarriari buruz, identitate espainiarrarekiko osagarriari baino;
 - 3) *IEL-espainiarrean*, bakarrik, mehatxu-sentimendu handiagoa dago espainiarra identitatearekiko osagarriari buruz..
- Hiru prototipoetan mehatxu-sentimendu handiena osagarri linguistikoarekiko da. Adostasuna adierazten dute honako emaitzek:
 - 1) euskararekiko mehatxu-sentimendua: *IEL-euskalduna*, indar handiarekin (5,97) eta *IEL-espainiarra+euskalduna* indar gutxiagorekin (3,15).
 - 2) espainiarekiko mehatxu-sentimendua: *IEL-espainiarra* prototipoan indar ez hain handiarekin (3,40). Beste modu honetan ere ikusten da hizkuntzak osatzen dutela osagarri nagusi bat —edo nagusia—.

IEL tipologiaren aurrekariak Eta/Edo ondorioak

Gorago esan bezala, IELaren prozesuaren eraikuntzan aurrekariak eta ondorioak etengabe azaltzen dira, eta beraien artean espiral moduan jokatu dute. Aurrekariak eta ondorioak aztertzerakoan *euskaldun izan nahi* eta *espainiar izan nahi* beltzez azpimarratu ditugu 3. Taulan, erregresio-analisan honako bi osagarri afektibo globalak agertzen direlako gehienbat: *IEL-euskalduna* identitatea ($B=.427$), eta —indar handiagorekin— *IEL-espainiarra* identitatea ($B=.581$).

Baina, IELa osatzeko erabili ditugun identitate-osagarri nagusi bakoitza nola azaltzen den ikusteko (identitate euskalduna globalki,

identitate espainiarra globalki, euskararekiko identifikazioa, espainierarekiko identifikazioa) erregresio-analisiaren emaitzak baino adierazgarriagoak dira korrelazio-analisiaren emaitzak. Ikus 6. Taula.

6. Taula: Identitate euskaldun globala, identitate espainol globala, euskararekiko identitatea eta gaztelaniarekiko identitatea, IELaren osagarrien aurrekariak+ondorioak (korrelazio bikoak)

Aurrekariak + Ondorioak	euskalduna globalki	espainiarra globalki	euskara hizkuntza	espainiera hizkuntza
Arbasotasun espainiarra	-,38**	,43**	-,35**	,37**
Sexu femeninoa	,01	,10**	-,06*	,08*
Euskara 1H	,25**	-,41**	,39**	-,44**
Unibertsitatean euskaraz -edo euskaraz+espainieraz- ikasten	,25**	-,54**	,48**	-,54**
Gizarte, edo natur eta tekniko, zientziak ikasten unibertsitatean	,01	-,04	,03	-,03
Eskuineko ideologiarekin gehiago lotu, ezkerrekoarekin baino	-,19**	,34**	-,22**	,25**
Alderdi politiko espainiarra barrutikoekin gehiago lotu, euskal barrutikoekin baino	-,38**	,56**	-,42**	,46**

** Korrelazioa esanguratsua da 0,01 neurrian (alde biko) / * Korrelazioa esanguratsua da 0,05 neurrian (alde biko)

Oharra: Letra lodiz korrelazio positibo eta negatibo esanguratsu nagusienak

Seigarren taulako (6. Taula) emaitzek honakoa erakusten dute:

- Alde batetik, identitate euskaldunak eta euskararekiko identifikazioak bat egiten dute. Bestetik, identitate espainiarrak eta espainierarekiko identifikazioak ere, bat egiten dute. Bakoitzak bere aldetik dituzten ezaugarriak berdinak izanik ere, bien artean alderantziz jokutzen dute; euren arteko bateraezintasuna nabarmentzen da berriro ere.
- Aurrekari moduan eragina duten ezaugarrien artean —pertsonarentzat ezinbestekoak direlako, hipotesi moduan behintzat— garrantzitsuenak honakoa dira: 1) jatorri etnikoa edo geografikoa —arbasoen izaera— eta jatorri linguistikoa —lehen hizkuntza, 1H-; 2) sexua ez da oso adierazgarria, eta ikasketa zientifiko-mota are gutxiago.
- Ondorio moduan eragiten duten ezaugarrien artean —aukerazkoak direlako pertsonarentzat, hipotesi moduan behintzat— garrantzitsuenak honakoak dira: 1) hizkuntzarekin lotzen den ezaugarria, unibertsitateko ikasketen hizkuntza-aukera, alegia, eta 2) ezaugarri politikoa eta ideologikoa.
- Aztertutako identitate-osagarrieekin gehien lotzen diren ezaugarriak honakoak dira:
 - 1) Ezaugarri politikoa, hau da, zein barrutiko alderdi politikoekin lotzen den gehienbat. Gure inguruan, batez ere, barruti espainoleko alderdiekin: positiboki *IEL-espainiarra* ($r=,56^{**}$) global-

ki, eta gaztelania ($r=,46^{**}$) ezaugarriarekin, eta negatiboki IEL-euskalduna ($r=-,38^{**}$) globalki, eta euskara ($r=-,42^{**}$) ezaugarriarekin.

2) Ezaugarri linguistikoa, hau da, unibertsitatean euskaraz edo euskaraz eta espainieraz ikasten aukeratzea ezaugarriari dagokiona. Batez ere negatiboki IEL-espainiarra globala, eta espainierarekin lotua ($r=-,54^{**}$), eta positiboki euskararekin lotzen dena ($r=,48^{**}$).

3) Jatorrizko ezaugarriak garrantzitsuak dira, bai etnikoa edo geografikoa, baita lehen hizkuntzari dagokiona ere (1H).

4) Zenbait ezaugarriak (sexua eta ikasketa-mota adibidez) ezer gutxi azaltzen dute.

IELari ildo afektiboa (sentimenduak) ildo kognitiboa baino indartsuago lotzen zaiolako, eta hobeto definitzen dituelako IEL-motak.

Eraitza horiek adierazten dutena zera da; orokorrean, identitateak definitzeko esanguratsuenak aukerazko ezaugarriak direla, eta, aldiz, ezinbesteko jatorrizko ezaugarriak bigarren mailakoak; bestela esanda, hasierako ezaugarriak ez dira garrantzitsuenak, baizik eta norberaren sozializazio bilakaeran ondorioztatzen direnak, hau da, gerokoak.

IELaren teorian hizkuntzek duten garrantzia ikusita, eta gurean ere hizkuntza-osagarriek betetzen dituzten funtzioak ezagututa, ondoren, korrelazio-analisiak eginez, identitate-osagarriekin beste hizkuntza-osagarri batzuk nola elkartzen diren aztertuko dugu. (7. Taula):

7. Taula: Identitate euskaldun globala, identitate espainiar globala, euskara hizkuntza— eta espainiera hizkuntza-identitateak, IELaren osagarriak diren bestelako ezaugarri linguistikoak: aurrekariak+ondorioak (korrelazio bikoak)

	euskalduna globalki identitatea	espainiarra globalki identitatea	euskara hizkuntza identitatea	espainiera hizkuntza identitatea
Hizkuntza Ezagutza maila				
euskararena	,511(**)	-,499(**)	,737(**)	-,483(**)
espainierarena	-,024	,293(**)	-,132(**)	,417(**)
ingelesarena	-,006	,100(**)	,011	,098(**)
frantsesarena	-,043	,039	-,026	,046
beste hizkuntza batena	-,091	,314(**)	-,242(**)	,327(**)
Hizkuntza Erabilera maila				
euskararena	,432(**)	-,557(**)	,609(**)	-,596(**)
espainierarena	-,215(**)	,450(**)	-,339(**)	,596(**)
ingelesarena	-,100(**)	,156(**)	-,121(**)	,098(**)
frantsesarena	-,108(**)	,076(*)	-,135(**)	,030
beste hizkuntza batena	-,198	,146	-,246(*)	,151
Hizkuntza Ezagutu nahi izatea				
euskara	,534(**)	-,406(**)	,582(**)	-,286(**)
espainiera	-,144(**)	,360(**)	-,204(**)	,437(**)
ingeleza	,036	,066	,011	,161(**)
frantsesa	,072(*)	-,009	,092(**)	,008
beste hizkuntza bat	,073	-,003	,052	,038

** Korrelazioa esanguratsua da 0,01 neurrian (alde biko)

* Korrelazioa esanguratsua da 0,05 neurrian (alde biko)

Beltzez korrelazio positibo eta negatibo esanguratsu nagusienak

***Bi identitate-mota
nagusitan jasotzen dira
identitatearekiko
dimentsio guztiak -ildo,
ezaugarri eta abar-:
identitate
espainiarra+euskalduna
eta identitate euskalduna.
Beste modu batean
esanda, aztertutako
populazioa, orokorrean,
bi talde horietan, modu
dikotomikoan banatzen
da.***

Zazpigarren taulan (7. Taula) lortutako emaitzak oso aberatsak izan arren, artikuluko honetan garrantzitsuenak aipatuko ditugu soilik:

- Orokorrean, eta errepikatzea bada ere, berriro esango dugu:
 - 1) Alde batetik *Euskalduna* globalki eta *euskara-identitateak* bere artean, eta , bestaldetik *espainiarra* globalki eta *espainiera-identitateak*, oso antzera jokatzan dute; hizkuntza-ezaugarrien korrelazioak oso antzekoak direlako, bai positiboki, eta baita negatiboki ere; horrela, IELan hizkuntzaren garrantzia azpimarratzen dutela, teoriak auresaten duen bezala.
 - 2) *Euskalduntasuna* eta *espainiartasuna* beraien artean bateraezina dira, baita orain aztertu ditugun ezaugarri linguistikoen arabera ere. Horrek berriro ere egoera gatazkatsua erakusten du; ezaugarriok aukerakoak dira pertsonarentzat, eta horregatik, agian, egokiagoa litzateke ondoriozko ezaugarritzat hartzea, aurrekarizko ezaugarritzat baino.
- *Espainoltasuna* —espainiarra globalki eta espainiera hizkuntza identitatea— neurri handiagoan lotzen da negatiboki *euskalduntasunarekin* —euskalduna globalki eta euskara hizkuntza identitatea— alderantziz baino; hau da, bateraezin handienak espainiartasunaren baitan daude, eta gatazka arrisku handiena ere bai.
- Bestelako emaitzak lortzen dira *hizkuntzaren ezagutza-maila, erabilera* eta *ezagutu nahi izatea* ezaugarriak aztertuz gero.
 - 1) *Euskalduna* globala identitatea euskara *ezagutu nahi izatea* ezaugarriarekin indar handienarekin lotzen da; ondoren datoz *ezagutza-maila* eta *erabilera* ezaugarriak.
Espainiarra globala identitatea gatzelaniaren *erabilera* ezaugarriarekin indar handienarekin lotzen da; ondoren dator *ezagutu nahi izatea*, eta, azkenik, *ezagutza-maila*.
 - 2) *Euskara hizkuntza* identitatea euskararen *ezagutza-mailarekin* lotzen da indar handienarekin; ondoren datoz *erabilera* eta, azkenik, *ezagutu nahi izatea*.
Espainiera hizkuntza identitatea *erabilerarekin* lotzen da indar handiagorekin; ondoren *ezagutu nahi izatea* eta, azkenik, *ezagutza-maila*.
- Bestelako emaitzak lortzen dira, aldi berean, gainerako hizkuntzak ezaugarri modura kontuan hartzen badira (ingelesa, frantsesa eta beste hizkuntzaren bat). Lorturiko emaitzek honako joerak adierazten dituzte —joerak, indar txikiarekin, modu ez-esanguratsuan agertzen direlako-:
 - 1) *Espainiartasuna* gainerako hizkuntza horiekin positiboki lotzen den bezala,
 - 2) *Euskalduntasuna* negatiboki lotzen da. Agian (ikertzeko hipotesi moduan behintzat), euskararen egoera ahula ezagututa, bes-

te hizkuntzetarako leku txikia uzten dela adieraz lezake horrek
—kezagarria gure testuinguruan—.

EZTABAIDA

Artikulu honen bitartez ezagutzera eman ditugun emaitzen inguruan badago zer eztabaidatua. Halere, gauzak argitzearen, hemen, ideia batzuk soilik azpimarratuko ditugu.

- IELarekin lotzen diren hipotesiak kontuan hartuz:
 - **H-1** baieztatzen da, IELari ildo afektiboa (sentimenduak) ildo kognitiboa baino indartsuago lotzen zaiolako, eta hobeto definitzen dituelako IEL-motak (2. eta 3. Taulak).
 - **H-2** eta **H-3** baieztatzen dira, IEL-motak eta identitate-osagarriak definitzerakoan (kultura eta hizkuntza, adibidez) aurrekariak eta ondorioek modu esanguratsuan jokatzen dutelako, zer den aurrekari eta zer den ondorio nekez bereiziz (6. Taula).
 - **H-4** baieztatzen da, artikuluan erakutsi ditugun emaitzak kontuan hartuta, adibidez, *euskalduna* ala *espainiarra* izan nahi portatera aukeratzekoan, *unibertsitateko ikasketa-hizkuntza* portaera aukeratzekoan eta abar (3. eta 6. Taulak).
 - **H-5** ez da osorik baieztatzen, *euskalduna* edo *espainiarra* ez diren bestelako lurraldetasun-dimentsioak (Europa, jatorrizko erkidego autonomoa) IELaren eraikuntzan ez direlako nahiko esanguratsuak, orokorrean behintzat (3. Taula).
 - **H-6** baieztatzen da neurri batean, aztertutako populazioaren gehiengoa lortutako IEL-mota sailkapenean kokatzen delako (aztertutako EAEko ikasle unibertsitarioen %59,7 hiru muturreko prototipo, eta bi erdibidekoetan) (1. Taula); baina baieztatze hori neurri batekoa da soilik, populazioaren ia erdia (%40,3) lortutako IEL-motetatik kanpo dagoelako; azken horietatik batzuek identitatea pertsona-arteak mailakoa izango dute, eta ez talde-arteak mailakoa. Gai hori oso garrantzitsua da gurea bezalako ukipen egoeratako erkidegoetan, baina artikuluan erakutsi ditugun emaitzekin ezin da baieztatu.
 - **H-7** baieztatzen da, neurri batean behintzat, hiru muturreko IEL-prototipoen artean bi bakarrik direlako indartsuak: *IEL-euskalduna* eta *IEL-espainiarra+euskalduna*, eta IEL erdibideko tipoen artean, bakarra delako esanguratsua, *IEL-euskalduna+hizkuntza espainola*. (1. Taula).
- *IEL-espainiarra+euskalduna* prototipoa, teorian, IEL integratzailea izan behar luke, bi muturreko IEL-prototipoen arteko lotura positiboa eta bateragarria egingo lukeena, izenak dion bezala zubi moduan jokatuz. Baina gurean alderantziz gertatzen dela dirudi,

Ukipen egoeran gertatu ohi den moduan, gurean ere hala gertatzen da: euskaldun eta espainiartasun dimentsioek ez dute modu independentean jokatzen.

Emaitzek adierazten dutenez, bateraezintasun handiagoa du identitate espainiarra duenak globalki hizkuntzarekiko, kulturarekiko identitate euskaldunarekiko, alderantziz baino; bestela esanda, eta paradoxikoa bada ere, talde boteretsuenak menpeko taldearekiko gorroto handiago du, alderantziz baino.

**IELaren teoriak
aurreikusten duenez gure
artean ere IELaren
eraikuntzan eta
funtzionamenduan
hizkuntza-dimentsioa
ezaugarri
garrantzizkoenetakoa da,
onerako eta txarrerako.**

izan ere, zenbait euskal osagarri negatiboki korrelazionatzen baitira (3. eta 4. Taula). Aldiz, espainiar osagarriekin ez da hori gertatzen, azken finean IEL-espainiarra prototipo moderatuago moduan agertzen baita. Hau, gure ustez, kezkarria da, besteak beste, egoera iluntzen duelako, integrazio bidea ireki ordez, ixten duelako.

- Emaizten artean oso esanguratsua da IELaren prototipo eta tipo nagusien artean dauden lotura positiboak eta negatiboak, baita identitate osagarri nagusien artean ere: globalak, linguistikoak eta kulturalak, kognitiboki eta afektiboki hartuta. Lotura horiek 3. Taularen analisi faktorialaren bitartez erakusten dira argien, izan ere, bi identitate-mota nagusitan jasotzen dira identitatearekiko dimentsio guztiak —ildo, ezaugarri eta abar—: identitate *espainiarra*+*euskalduna* eta identitate *euskalduna*. Beste modu batean esanda, aztertutako populazioa, orokorrean, bi talde horietan, modu dikotomikoan banatzen da.

- Lortutako bi identitate nagusi horiek, korrelazio negatiboen bidez adierazten direnez, modu dikotomikoan eta bateraezinean agertzen dira. Eta ondorioz, egoera gatazkatsu xamarra erakusten dute. Ukipen egoeran gertatu ohi den moduan, gurean ere hala gertatzen da: *euskaldun* eta *espainiartasun* dimentsioek ez dute modu independentean jokatzeko, alderantziz, oso lotuta eta modu interaktiboan gartzatzen dira; gehienetan, era konpetitibo+gatazkatsuan. Emaiztekin adierazten dutenez, bateraezintasun handiagoa du *identitate espainiarra* duenak —globalki hizkuntzarekiko, kulturarekiko— identitate *euskaldun*arekiko, alderantziz baino; bestela esanda, eta paradoxikoa bada ere, talde boteretsuenak menpeko taldearekiko gorroto handiago du, alderantziz baino.

- IELaren teoriak aurreikusten duenez —eta emaitzek etengabe erakusten dutenez—, gure artean ere IELaren eraikuntzan eta funtzionamenduan hizkuntza-dimentsioa ezaugarri garrantzizkoenetakoa da, onerako eta txarrerako. Horrek zera esan nahi du: ukipenezko bi hizkuntzen artean —euskara eta espainiera—, jadanik aipatu ditugun fenomenoak indar bereziarekin agertuko direla, batez ere honako norabidean: espainieraren aldekoek indar gehiagorekin euskararen kontra eginez, alderantziz baino. Beraz, askoz ere nekezagoa izango zaigu euskararen alde egitea espainieraren alde egitea baino; gurean aipatzen den “elebitasun eta elebiduntasun orekatuak” lortzeko helburura iristea ia ezinezkoa izango da. Nahiz eta euskara gutxiengoaren hizkuntza eta hizkuntza gutxiagotua izan —hizkuntza gutxiagotua eta bereziki landu beharrekoa—, eta espainiera, berriz, hizkuntza hedatuagoa eta osasuntsuagoa izan, horren aldekoak dira bereziki euskara nahi ez dutenak, paradoxikoki berriz ere.

- Egia esan, emaitza kezkarriak lortu ditugu azterketa honetan, batez ere, euskararen eta espainiaren arteko harremanen inguruan. Emaizta kezkarrien artean ezin dugu aipatu gabe utzi euskaldun-

tasuna identitate munduan agertzen diren beste hizkuntzekiko joera negatiboak ere —palak badira ere—. Gaur egun eraikitzen ari den *elebitasunetik eleaniztasunera* joan beharreko diskurtso berrian, nola interpretatu euskalduntasun mundua positiboki ez kokatzea?

- Emaizta horiek bereziak badira ere, orokorrean koherenteak dira orain arte egindako hainbat ikerketek erakutsitakoarekin, esate baterako, duela gutxi Baxok eta besteak (2006) argitaratu duten ikerketako emaitzekin. Baina horri buruz ez gara orain mintzatuko. Bai ordea aipatuko dugu ikuspegi anitzeko ikerketak egitea komeni dela; ikuspegi bakoitzak alderdi desberdinak azpimarratzen ditu, eta denen arteko osagarritasunak gaur eguneko egoera hobeto ulertzen lagunduko du. Bide horretan, ikuspegi psikosoziala —gehienbat— eta soziologikoa erabiltzen saiatu gara lan honetan; batzuetan, jadanik gutxi gora-behera genekiena baieztatzeko, baina baita ezagutza berriak lortzeko ere.

- Amaitze aldera aipatu nahi genuke, hemen erakutsi ditugun emaitzak populazio berezi bati dagozkienak direla (EAEaren ikasle unibertsitarioak), nahiz eta orokorrean antzeko emaitzak lortu ohi diren. Gainera, kontuan hartu behar da momentu zehatz bateko datuak aztertu direla (2004 urtean). Gure ustez, identitatearen eraikuntza oro har, eta, bereziki, identitate etnolinguistikokoaren eraikuntza (IEL), prozesu oso dinamikoaren bitartez garatzen ari dira, eta, horregatik, mereziko luke urte gutxi barru antzeko azterketarik egitea.■

Nahiz eta euskara gutxiengoaren hizkuntza eta hizkuntza gutxiagotua izan hizkuntza gutxiagotua eta bereziki landu beharrekoa, eta espainiera, berriz, hizkuntza hedatuagoa eta osasuntsuagoa izan, horren aldekoak dira bereziki euskara nahi ez dutenak, paradoxikoki berriz ere.

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- Azurmendi, M.-J. (2000). *Psicosociolingüística*. Bilbao: UPV/EHU.
- Azurmendi, M.-J., Larrañaga, N., Apalategi, J., Bourhis, R.Y., Ruiz, S., Etxepetleku, H. & Sánchez de Miguel, M. (2005, argitaratu gabeko txostena). *Inmigración: Relaciones intergrupales, estrategias de aculturación y construcción de ciudadanía* (ikerketaren kodea: 1/UPV 00109.231-H-14798/2002).
- Baxok, E., Etxegoin, P., Lekunberri, T., Martínez de Luna, I., Mendizabal, L., Ahedo, I., Itzaina, X. & Jimeno, R. (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearren hasieran/Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI/Identité et culture basques au début du XXIème siècle*. Donostia/San Sebastián: Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos/Société d'Etudes Basques.
- Erize, X. (bildumari) (2001). *Joshua A. Fishman: Llengua i identitat*. Alzira: Bromera.
- Giles, H. (ed.) (1977). *Language, Ethnicity and Intergroup Relations*. New York: Academic Press.